

## Euskara ikasi eta praktikatu

JOAN MARI TORREALDAI



**MOTA** guztietako Euskaltegiak jo eta ke dabilza ikasturte honen hasieran jendea euskara ikastera erakarri nahian. Gero eta gutxiago omen dira euskara ikastera bere kabuz datozenak. Erakari egin behar dira, bezaz. Eta horretarako deiak egin behar, irrati, telebista eta egunkarien bidez. Amuarekin ihardutea baino aisagoa da sareta botatzea.

Entzun ditugun sloganak erreparratuz, euskara ikasteko bi arrazoi-mota nagusi zabaldu dituzte. Bat: euskaldun osoa izateko, gizartean hobeki integratzeko... ikasi behar da euskara. Eta bestea: lanpostua aurkitzen, lana bilatzen laguntzen duela euskarak.

Bata eta bestea dira egia. Biak dira behar beharrezkoak. Baina biak batera, ez bakoitza bere aldetik. Orain arteko eskarmentuak erakusten duenez, bi motibo hauetako batekin bakarrik abiatzen dena ez da helmugara iristen.

Nork ez ditu ezagutzen bere inguruan «arainaz-tarrak» deitzen diren horiek, hau da, biak euskara ikasten ari eta ihardun eta sekula ganoraz ikasten ez. Hauetako asko euskaldun izatearren, arbasoen mintzaira berreskuratzearren hasiak dira ikasten, baina alperrik.

Bada, bestealde, azken urteotan beste jende-mota bat ere euskara ikasi bai baina praktikatzeko ez duena. Lanpostua lortzeko saiatu dira euskara ikasten, etsaminak egin dituzte, titulua lortu ere bai... Lanpostua eskuratu dute, eta adio euskara. Leihatilaren atzekaldean jarritz gero, erdarara itzultzen dira beriz.

Larria da egoera honen azpian dagoen arazoa: jai du berreskalduntzeak, utopia da Euskal Herri euskalduna, euskara beharrezko ez den bitartean. Modu batera edo bestera, baina beharrezko.

## EL CORREO ESPAÑOL

### Makilaia hutsa

Harritu egiten du, hala ere, Corcuera Legeari Convergencia i Unio eta EAJK eman laguntza. Badirudi bi alderdi horiek norbanakoen askatasunak defendatzeko ibilbidea aldatzea erabaki dutela. Mossos d'Esquadra eta Ertzaintzak zalantzako pribilegio hau izateko, alegia, agindu judizialik gabe etxeetara sartu edo hiritar bat komisaldegira eraman identifikatzeko asmo bakararrekin.

EDITORIALA

## DEIA

### HB-ri atek itxi-ireki

Eta gezurra badirudi ere, alderdi abertzaleak dira auzi horretan gehien katramilatzen direnak. Ana Urtxuegik eta Eugenio Azpirozek aipatu ere ez zuten egin osteguneko Batzar Nagusietan. Jakina, azpi-azpian abertzale alderdien arteko lehia dago: nork nor irentsi, alegia. Eta gezurra badirudi ere, abertzaleak dira autobidearen arazoa



— Lagun maiteok.  
— Beste itzulpen akats bat?  
PLANTU / LE MONDE

konpontzeko gauza ez direnak. Ezta hoztasun eta patxadaz eztabaidatzeko ere. Gertatuak gertatu, joanak joan, okerrak oker, ez dira gauza auziari aurrera begira heltzeko, beti lehengora itzultzen dira, baster guztiak nazkatzeraino.

M. ATXAGA

## EL DIARIO VASCO

### Autobidea eta Ajuria Eneako Mahaia

Ajuria Eneako Mahaia erabili den modua dela eta, beharrezkoa dugu kritikoak izatea eta salatzea —aitormen eta komu-

nikatuak alde batera utzita—bertan aztertutakoak ez duela balio izan gure herria politikoki normalizatuko duten ekimen jakinak bultzatzeko; are gehiago, ez da bat etorri mahaikide batzuen portaera bereziarekin.

CARLOS GARAIKOETXEA

## TIME

### Euroarmada NATOtik kanpo

Gerra hotza bukatuta eta desarmatze prozesua eguneroko ogi bihurtuta, ez dirudi oso egokia Europar Armada berria eraikitzeaz hitz egitea. Baina horixe izan da hain zuzen ere Mitte-

randek eta Kohlek joan den astean egin zutena. (...)

Euroarmada osatzea ez da kontu erraza izango. Bere lehen harriari —brigada frantziar-alemaniarrari, alegia— nekez dei dakiok indar batua. Erregimentu bakoitza erabat frantziarra ala erabat alemaniarra izango da, eta bakoitzak bere armamentua eta bere taktika bereziak izango ditu. Nahasketa buruzagitzan baino ez da izango. Brigada hau 40.000 soldaduko indar bihurtzeko urte asko beharko dira, eta Armada osoa osatzeko belaunaldi bat. Ordu-rako, zorte apur batekin, ez da beharrezkoa izango.

JAMES O. JACKSON

## Atutxatarrak

INAKI URIA



**XABIER** Atutxak esanda, irakurri dut gazte jendearen artean eragozle agertu dela kasik erdia, eta ehunetik bost intsumisio. «Euskadin»-zioen EGIKO arduradunak.

Hego Euskal Herrikoak edo Euskal Autonomi Elkarteak izanda ere, handia da kopurua. Balezkoa. Kontutan hartzekoa.

Lau mila lagun Iruñean, bi mila Bilbon, milaka Donostia, Oreta, Arrasate... eta beste hainbat herritan. Osteguneko greba eta manifestazioak ere kontutan hartuko zituzten Espainiako politiko eta militarrek.

Espainiako Poliziak eta Ertzaintzak hartu zuten gazteen protesta deusezteko lana. Acenoreko langileen kontrako erabilitako estilo berean. Harriak gazteak, pelotazkoa besteak. Ez batzuk, ez besteak, ez dira nonbait Atutxa gazteak ezustean bakesu, nahiz eta bakesu agertu.

Santi Arrospe, «Potros» EGikoaren hitzetan, Ynestrillas bezain militar dela dio Xabier Atutxak. Seguruena, biak militarrek direla eta, bezaz, bien kontrako dagoela esan nahi izan du Atutxa gazteak.

Atutxa zaharrak aldiz, Juan Marik, ongi bereizten ditu militar batzuk eta besteak. Ynestrillas moduko espainiar militarren onartu bait ditu Ertzaintzaren buru. Ez Arrospe izenekoak.

Eta, Ertzaintza hori, Atutxa zaharrak bidali du Atutxa gazteak bezala pentsatzen dutenen kontra. EGI ager bai daiteke kontzientzi eragozpen eta intsumisioaren alde. Baina, EAJ intsumisio...???

## ZUZENDARIARI

### Pazientzia Athletic

«Jaungoikoak eman zizun pazienteia erabiltzen ikas ezazu» entzuna naiz makina bat aldiz neure amonari, eta pazienteia behar ote den edo ez zalantzan dudak bakoitzean hutsik egin gabe dakorkit burura gaztetan ikasitako hura.

Horregatik ausartuko naiz, azken aldiaren taberna zuloetatik hasi eta komunikabideek eskaintzen duten plaza zabaleraino, izugarri hedatzen ari diren Bilboko Athleticen kontrako eraso guzietan pazienteia eskatzera. Hori berori eskatzen ari dira azken bi edo hiru asteetan jokalarik, tekniko eta Athleticetako zuzendariak, eta ez nuke nahi inork pentsatzea hain lana zuritze-gatik ari naizenik. Gurdia bideirik iriteko gerta litekeelako gutxi irupeten bat galdu izana, baina ez da oso ohizkoa 'kulpa' gurdia izatea. Normalean gurdia daramaten idiek izaten dute zerikusia, eta haiek zuzen bideratu beste lanik ez daukan izainak zer esanik ez. Bakoi-tzari berea bezaz.

Athleticek joan den denboraldiko liga amaitu zutenetik pase txukun bat egin ez duena egia da. Egia da baita ere gol

oso piska sartu dituztena. Ez da egia txikiagoa Iru zein Kike atezpian direla gol ikaragarri sartu dizkietela. Udako partidua sorta eskasia izan zela ukatzen ez gara hasiko orain. Eta zer esanik ez, liga hasi ondoren jokatu dituzten partiduetan. Negargarria, lotsagarria, erri-dikuloa, umeak bezala... bale. Eta zer?

Ezin hasiko gara orain jokalariek gertzelartu, presidentek aldatu eta entrenatzaileak urkatu eta berriak ekartzen. Presio handiegia jasaten ari dira jokalariek batera lasai jokatu ahal izateko. Eta taldeak kanpoko presio horiek garaitz lehen neurri drastikoak hartzea behar lezake Athletic. Bigarren eta lehen dibisioaren artan dagoen bidea baino ezagutzen ez duten taldeek hartu ohi dituzten neurri merkeak dira horiek.

RIKARDO ARTXIOLA  
Elgoibar (Gipuzkoa)

### Erdal musika Bizkaia Irratian

Euskaldun guztiok dakigun legez, gure Bizkaia maite honetan dagoeneko, badaukagu irrati bat euskeraz emittitzen dauana. Ene iritziz, beharrez-

koa zan erabat honela, bizkaieraz berba egiten dabezenak euren irratiat jotzen dabelako. Hala ere, programazio osoa orokorrean nahiko txarra iruditzen baje, musika arloa penagarria zeharo. Arlo honetan erdera da jaun eta jabe, euskaldun musikariak batzutan agertzen direlarik. Hau ikusita, zertarako behar ote dogu ingeles eta espainol musikaz jositako irrati euskaldun bat? Musika hori aditeko edozein irrati dogu eta.

Hau dala eta, zera proposatu egiten dot: euskeraz abesten daben musikariak baino ez ipintea, iparraideko Gure Irratiak egiten daben lez. Beste aldetik, beste musika mota ere sar leike adibidez, galiziar, kataluniar, irlandar edo/ta beste edozein mintzaira minorizatuz eginikoa, alegia.

Nik uste dot danok eskertuko gendukeela zeren eta musika espainol eta ingeles «arrakastatsua» entzun gura dauanak badaki nora jo.

ALBERTO MARTINEZ  
Bilbo

## PERTSONAIA



### Soldaduzkarako zozketa

Bada munduan herri txiki bat argia bezain kirtena bere ondoko herri handiek zirikatatu ohi dutena. Herri txikiak ohore bat du erriatetik irtena kasko gabeko bi koxkoetan ostikada handiena. Herri gelditu eta ez umildu herri handitan barrena herri txikiak gazte guztiak egin behar gendukena.

JON MAIA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIEEN ETXEZAHARRETA

INAKI URIA

Publikizatzaia:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E  
Lege Gurdiala: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza sozila, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTTA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapuri / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11